• OARSO BIDASOKO •

# HITZA

OSTIRALA, 2024KO
UZTAILAREN 5A
bidasoa.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus
918. ZENBAKIA



Ane Mendizabal Sarriegi

## Tosta arteko asteburuak

**Hasi dira traineruen liga guztiak. Oarso-Bidasoak zortzi ontzi izango ditu abian diren bost ligetan. Helburuak, traineruko bana** • 12-15

### Arrauna, eskakizun handiko kirol ez-profesionala • 4-7

### Sanferminekin lo egitea zer den ahaztuko dute antxotarrek • 35-38

# Arrauna, zaletasunetik harago




**San Pedroko ontzia Hondarribian jokatu zen Gipuzkoako Txapelketan.**
Josu Zelaiaran

**Arrauna sakrifizio eta esfortzu handia eskatzen duen kirola den arren, amateur izaerakoa da, eta askok «malabarrak» egin behar izaten dituzte lana, entrenamenduak, bizitza soziala eta ongizate mentala zaintzeko.**

ANE MENDIZABAL SARRIEGI
OARSO-BIDASOA

Arraunlariak denboraldi betean sartu dira dagoeneko, eta irailera bitarte ez dute udako lehen hilabetean hartu duten olatua askatuko. Ekainaren 22 eta 23ko asteburuan hasi ziren KAE1 eta KE2 ligak, eta Euskotren nahiz Eusko Label ligetako arraunlariek Galizian egin zituzten denboraldiko lehen palakadak iragan asteburuan. Hilabete hauetan guztietan landutakoak erakusteko prest uretaratu ziren.

Denboraldia hasi bitarteko bidea, ordea, ez da makala izaten: entrenamenduak, lana, bizitza soziala eta ongizate fisiko zein mentala uztartzea lan neketa izaten da arraunlari askorentzat. Sendo hartzen duten konpromisoa da. Azaroan hasi eta iraila amaieran bukatzen dute denboraldia, hamaika hilabeteren ondoren. Taldeek, orokorrean, asteko sei egunetan entrenatzen dute, asteburuak barne, eta horietako bakoitzean bi ordutik gorako entrenamendu gogorrak izaten dituzte. Zenbait arraunlarik, gainera, orduz kanpo entrenatzen dute, postua irabazi eta fisikoki edo teknikoki hobekuntza bilatzen dutelako.

Exijentzia maila oso altua duen kirola den arren, arrauna profesionalizatu gabeko kirola da, eta hortaz, ez dago arraunetik soilik bizi den arraunlaririk. Ania Perez (Irun, 1999) Arraun Lagunak-eko arraunlaria da, eta ia urte osoa entrenatzen ibili ondoren, denboraldia ilusioz eta indartsu hasi dutela kontatu du. Ez da gutxiagorako, ligako lehen bi estropadetako banderak astindu baitituzte.

Udan gozatu ahal izateko, ordea, aurretiazko lana egin behar izaten da, eta Perezen ustez lan hori kirolari profesionalen adinakoa izaten da: «Azkenean, esfortzu handia egiten dugu, bai fisikoki eta baita mentalki ere, gure gaitasun eta potentzia guztia atera ahal izateko. Eta lan hori gehienetan ez da ikusten». Profesionalek, kasu askotan, egunean bitan entrenatzen dutela dioen arren, ezberdintasuna arraunetik bizi ezin daitekeela dela azaldu du. «Nire kasuan, adibidez, pisua ordaindu behar dut eta horretarako, zortzi orduko lan bat behar dut. Bi lan ditudala kontsi-



deratzen dut: lana-lana, eta metaforikoa». Oreretako fisioterapia zentro batean egiten du lan, eta jardunaldia bukatzerakoan bizikleta hartu eta Trintxerpera joaten da entrenatzera.

Arraunlariek taldekidearekiko hartzen duten konpromisoa oso handia da, eta batzuetan egunerokotasuna gogorra izan daitekeen arren, babes sarea garrantzitsua izaten da: «Elkarren artean oso ongi ulertzen eta laguntzen gara», dio Perezek. Entrenatzera joateko gogorik gabe daudenean, edo mentalki zein fisikoki oso nekatuta daudenean asko estimatzen dute elkartasun hori. «Izan ere, entrenatzeko gogorik ez duzunetan ere nola edo hala joan behar izaten dugu taldea aurrera ateratzea nahi dugulako».

Sanpedrotarra Arraun Elkarteko Mikel Txintxurreta (San Pedro, 1998) ere Perezen iritzi berekoa da. Profesional bezala zaindu eta profesionalen bizitza egiten dutela ziurtatu du, exijentzia eta kirol maila aldetik asko eskatzen duen diziplina delako.

San Pedrok iaz KAE1 liga irabazi, eta play-offetan aurten Eusko Label ligan aritzeko txartela eskuratu zuen. Urte bien artean, ordea, Txintxurretak ez du alderik sumatu: «Taldearen aldetik, eskakizun maila, bai aurten eta baita aurreko urtean ere, berdina izan da. Gure helburua Eusko Label ligara igotzea zen, eta maila horretara heltzeko exijentzia maila horretan egon behar duzu».

Txintxurretak fabrika batean egiten du lan, eta goizean goiz joaten da hara. Lanetik irten, motxila prestatu, eta entrenatzera joaten da zuzenean. «Arrauna eta lana bateratzea nahiko gogorra egiten da, bai lantokian eta baita klubean ere ordu asko pasatzen ditugulako», adierazi du.

San Juango arraunlaria da Ander Makazaga (Pasai Donibane, 1998). 2015ean hasi zen aurreneko aldiz traineruan, eta urtebetez Oiartzungo Itsaslapurrak taldean egon ondoren, gainontzeko urteak etxeko taldean egin ditu. 2019an igo zen A trainerura, eta ordutik, KAE1 ligan aritu dira. Aurtengo denboraldia liga horretan arituko diren azkena izatea espero du. Orain arte hiru estropadatik hiru irabazi dituzte.

San Juan eta Lapurdi taldeetan prestatzaile fisiko gisa aritutakoa da, eta haren ustez kirol mailan profesional bezala exijitzen zaie arraunlariei, baina finean, amateur egoera dute. «Klub

> «Profesionalizatzeak aukera emango luke lasaiago ibiltzeko eta arraunean zentratzeko»
>
> **ANDER MAKAZAGA**
> SAN JUANGO ARRAUNLARIA

guztiek ez dute kristoren dirutza behar diren baliabide guztiak emateko, eta arraunlariok lan egin behar izaten dugu ezin garelako honetaz bizi». Makazaga autonomoa da, eta duela gutxi zabaldu zuen Ander Makazaga Kirola eta Ongizatea zentroa Donibanen. Aldi berean, Arraun Lagunak-eko gazteen entrenatzailea da, eta egunero, guztia antolatzeko, «malabarrak» egiten ditu: «Autonomoa izatea zaila bada berez, imajinatu arraunarekin uztartuta».

Ildo berean aritu da Nerea Orena (Donostia, 1981) Hibaikako arraunlaria. «Klub oso xumeetan ibili naiz. Orduan baliabideak askoz ere urriagoak ziren eta kristoren esfortzua suposatzen zuen emakumeentzako materiala eduki behar izatea. Dena bikoiztu egin behar zuten». Orena arraunean hasi zenetik gauzak asko aldatu dira. 2005. urte inguruan emakumeek batelak egiten zituzten soilik, eta ondoren, trainerilletara igaro ziren: «Hasieran ez zegoen ez txapelketarik ezta saririk ere, eta oso talde gutxi ateratzen ginen. Traineruarekin emakumeen arrauna ezagutarazi da, eta neska gehiago daude orain». Orenaren ustez afizio bat izateko eta ordainetan ezer ez jasotzeko sakrifizio handia da arraunlariek egin behar dutena, eta lehiak gora egiten duen heinean, eskaera maila ere gero eta altuagoa dela uste du.

Irakaslea da Orena. Ordutegi aldetik ongi moldatzen da entrenatzeko. Urte-

ko garai zailena, ordea, uda izaten da harentzat: «Okerrena orain izaten da, laneko oporrak ditut, baina ezin naiz oporretara joan. Bi hilabeteak arraunean pasatzen ditut, eta denboraldia bukatzen denerako lanean nago berriro». Urtero egiten duen hautua den arren, sakrifizio horrek urtero eragiten diola aitortu du.

Profesionalizatzearen aldekoak diren ala ez galdetzerakoan, Perezek eta Txintxurretak argi dute pausoa ematea gustatuko litzaiekeela, arraunlarien bizitza asko erraztuko litzatekeela uste dutelako. Orenak eta Makazagak, berriz, zalantzak izan dituzte. Orena: «Alde batetik onurak izango lituzke, esfortzu handia suposatzen duelako, batez ere lanean zaudenean. Entrenatzeko eta gainontzeko gauzak egiteko denbora asko kentzen dizu. Baina iruditzen zait ekarriko lukeela baliabide gehiago dituzten taldeak indartzea, eta besteak ahulago gelditzea». Makazaga: «Ez dakit. Nire lana asko gustatzen zaidanez horretan jarraituko nuke. Egia da jendeak lanagatik arrauna utzi behar izaten duela, denborarik ez duelako edo ez delako lanarekin bateragarria. Orduan, profesionalizatzeak aukera emango luke lan gutxiago egin edo lasaiago ibiltzeko, eta arraunean gehiago zentratzeko».

## Zaintza integrala

Lanak eguneko ordu gehienak hartzen dituen bitartean, zaintza pertsonalak ere egunerokotasunean pisu handia hartzen du, eta hala moduz, tarte bat eskaini behar izaten diote. Batetik, elikadura zaindu behar dute, eta bestetik, entrenamendu gogorrei aurre egiteko ongi deskantsatu behar izaten dute.

Elikadura talde guztietan zaintzen den arloa da, baina guztiek ez dute modu berean egiten. Gizonezkoen kasuan, pisu jakin bat eskatzen diete, eta askorentzat gain karga handia izan daiteke, gehienetan oso exijenteak izaten direlako. Makazagaren ustez behar bezala errenditzeko eta aldi berean pisua jaisteko oreka bilatzea zaila izan daiteke, eta psikologikoki arraunlariengan eragina izan dezake. Sanjuandarren kasuan ez dute nutrizionistarik, klubak ezin izan duelako gastu hori bere gain

> «Psikologikoki ongi egon behar zara ondoren taldeari ekarpen bat egiteko»
>
> **ANIA PEREZ**
> ARRAUN LAGUNAK-EKO ARRAUNLARIA

hartu. San Pedroko arraunlariak, berriz, astean behin igotzen dira baskulara, pisua kontrolatzeko. Aurten, gainera, nutrizionista baten laguntza izan dute, eta horrek jarduna «asko errazten» diela uste du Txintxurretak.

Hibaikaren kasuan, aldiz, pisuari garrantzia kentzen saiatu direla kontatu du Orenak. Aurten ez dute nutrizionistarik izan, eta ongi elikatzea norberaren ardurapean utzi dute. «Aurten pisua jaisteari garrantzia kendu nahi izan diote, ikusita zein arazo ematen diren...». Arazoak elikadura obsesio bilakatzen denean gertatzen dira. «Agian beti egon dira, baina orain gehiago hitz egiten da horretaz. Gustatuko litzaidake errendimendua hobetzen joatea beste gauza batzuk zainduta. Elikatzea oso garrantzitsua da, baina beti osasuntsu egote aldera, eta hor muga oso fina izaten da», gehitu du. Arraun Lagunak taldean ere elikadura norberaren esku uzten dute.

Zaintzaren beste alderdi bat psikologikoa da. Hilabete luze horietan garrantzi handia duela iritzi dute laurek. Arlo psikologikoa orain arte albo batean geratu dela uste du Makazagak, baina haren garrantzia oso handia dela: «Arazo pertsonal bat baduzu gure bizitza estiloagatik masifikatu egin daiteke, eta elikadurak, deskantsuak, zure burua zaintzeak... horrek guztiak limitera eraman zaitzake». Elkartean psikologo baten laguntza ez badute ere, entrenatzailearen eskutik (Joseba Fernandez) buru osasun egokia izateko erraztasunak ematen dizkiela azaldu du.

Perez irundarrak azaldu duenez, ongizate emozionalak arraunkeran eta errendimenduan zuzeneko eragina izaten du: «Psikologikoki ondo egon behar zara fisikoki etekina ateratzeko, eta taldeari ekarpen bat egiteko». Makazagak aipatutako limite hori ezagutu zuen Perezek. 2023ko udan antsietatea eta depresioa izan zituen, eta bi hilabetez bajan egon zen. Laguntza psikologikoa eskatu, eta haren egoera erregularitzatzea lortu zuen.

Hibaika da lau elkarte horien artean psikologo baten laguntza izan duen bakarra. Duela urte batzuk profesional baten laguntza izan zuten, eta aurtengo denboraldian ere, duela gutxi, psi-




**Hibaikako traineruak bere txanda irabazi zuen Bueun jokatu zen Euskotren ligako bigarren jardunaldian.** Josu Z.

kologo batekin lanean hasi dira. Orena donostiarrarentzat «oso positiboa eta garrantzitsua» izaten ari da. Urtean zehar kudeatzen zailak izan daitezkeen egoerak bizitzen dituzte arraunlariek: aurre-denboraldia adibidez, oso luzea izan daiteke eta uda garaian ere emai-

> «Batez ere estropada on bat egin eta ondorengo satisfazioa kristorena da»
>
> **MIKEL TXINTXURRETA**
> SAN PEDROKO ARRAUNLARIA

tzak esperotakoak ez direnean, edo presioa kudeatzeko, ezinbestekoa izaten da buru osasuna egoki mantentzea.

Arraunlari izateko DNAn «burugogorrak» izatea dagoela gehitu du Txintxurretak.

**Sakrifizioaren emaitza**

Urte guztian zehar, beraz, gauza asko sakrifikatzen dituzte arraunlariek udako hilabeteetan izaten duten lehiaz gozatzeko. Gauza horietako bat festara atzeratzea izaten da. «Arraunlariok oso mentalizatuta gaude, eta ez dugu parrandarik egiten, baina askotan kosta egiten da. Arrauna profesionalizatuko balitz ez litzateke horren zaila izango erabakia hartzea», iritzi du Arraun Lagunak-eko arraunlariak.

Baina merezi al du sakrifizio horrek guztiak? Dudarik egin gabe baiezkoa bota dute laurek. Nerea Orenak hogei urte daramatza arraunean, eta harentzat arrauna bizitza estilo bat bihurtu da. Gazteagoak dira Makazaga eta Perez, eta azaldu dutenez kuadrillakoek askotan galdetu diete ea arrauna noiz uzteko asmoa duten. Biek ala biek, ordea, ez dute uzteko aukera gertu ikusten. «Arraunlaria denak eta benetan arraunaz disfrutatzen duenak benetan merezi duela esan diezazuke. Kirolari bezala urtero fisikoki hobetzeak, teknikoki hobetzeak, eta lan horrek guztiak ematen dituen emaitzak ikusteak asko betetzen gaitu, eta bertan egiten dituzun harremanak eta talde sentimendu hori oso polita da ere. Entrenatzera zatoz zuregatik, ondokoagatik, eta denek batera lortu nahi dugun horregatik».

Perezi, bereziki, Kontxan aritzeak egiten dio ilusio gehien, eta emakumeen arrauna gorantz doala ikusteak asko betetzen du: «Kontxan jende pila bat ikusten duzu zure kamisetarekin, eta pentsatzen duzu: nondik atera dira hauek? Emakumeen kirola gorantz doa, eta gero eta jarraitzaile gehiago ditu». Arraunarekiko sentimendu oso sakona du irundarrak, pasio hutsagatik aritzen da, eta egun ez du bere burua beste inon ikusten: «Udan arrauna telebistatik ikusiko banu zulo bat egingo litzaidake sabelean, bertan egon nahiko nukeelako: sufritzen, lagunekin, uretan. Sortzen den adrenalina hori asko gustatzen zait».

Txintxurretak ere udako momentu horiek ditu gustukoen, «batez ere estropada on baten ondorengo satisfazioa». Udan, neguan egiten den lan hori guztia ikusteko garaia izaten da; emaitzak ikustear daude. Zorte on denei. ■







**Goialdean, San Juango ontzia; behealdean Arraun Lagunak taldeko trainerua.** Josu Z.

# Asko falta da iraileko emozio indartsuetarako



**Zaleek ere egiten dute handi arrauna. Koloreak kolore, giro onak ezinbesteko lotura du traineruen lehiekin.** HITZA

**Hasi dira traineruen liga guztiak. Oarsoaldeko eta Hondarribiko zortzi traineru ari dira horietan parte hartzen, iazko kopuru berbera, baina bi aldaketarekin.**

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Asteburuak beste era batera antolatzeko aroa iritsi da. Arraunaren zaleen artean bederen hala izango da. Izan ere, jada martxan dira arraun liga guztiak, eta den-denetan daude Oarsoaldeko nahiz Bidasoko ordezkariak. Telebistan, irratian, webguneetan edo HITZA-n bertan hasi dira jasotzen denborak, aldeak, puntuak, sailkapenak, analisiak eta bestelako asko zale horiek. Udako goiz eta arratsaldeak ezberdinak dira arrauna hurbil sentitzen dutenentzat.

Agian neguan eta udaberrian ez bezala, koloreek garrantzia dute ekainetik irailera. Morea, arrosa, berdea edo beltza. Horiek ligetako hemengo koloreak, zaleek eta arraunlariek harro eramango dituztenak. Irailean ikusiko da nork zer irabazi edo galdu duen. Baina arraunzaleek koloreak ez dituzte emaitzen arabera aldatuko. Ziur. Galdu edo irabazi, sustrai sakoneko kirola da gurean arrauna, bateletatik hasi eta traineruetaraino. Hala izaten jarrai dezala.

Irailean izaten dira arraunari lotutako emoziorik indartsuenak, orduan erabakitzen baitira bai ligak (igoerak eta jaitsierak barne) nahiz Kontxa. Ordura arteko bidea luzea da, eta irailean ezustekorik izan nahi ez bada, edo besterik gabe sasoia lasai bukatu nahi bada, uztailean eta abuztuan lan txukuna egitea ezinbestekoa da. Dena irailerako uztea latza baita.

Eusko Label liga, Euskotren liga, KAE1 eta KAE2 ligak, eta ETE liga. Horiek dira bertako diren traineruen lehia eremuak. Aurten orotara zortzi traineruk osatzen dute oarsoarren eta bidasoarren ordezkaritza: Hondarribiak hiru ditu, Eusko Labelekoa, Euskotrenekoa eta KAE1ekoa; Hibaikak bi, Euskotrenekoa eta KAE2koa; San Juanek beste bi, KAE1en eta ETEn daude; eta San Pedrok bakarra, Eusko Labelen. Batzuk irabazleen fokupean egingo dute boga, banderen borrokan sartuta izanen dira eta zaleen eta hedabideen artean maiz agertuko dira azaltzen zer eta nola irabazi duten. Baina arraunak badu egian ez hain ikusgarri den ezaugarri bat: denak ez direla irabazle, eta besterik gabe, kirol lehiaz gozatzea eta herrien izena eramatea nahikoa dutela hainbatek. Alde batetik edo bestetik begiratuta, dena da arrauna, denak du harremana traineruen udako jardunarekin.

### Iaz bezala, zortzi

Bertako traineruen kopuruari dagokionez, iazko sasoiko berbera da. Baina bi aldaketa esanguratsu izan dira San Juanen: bi urtez lehorrean izan ondoren, *Batelerak* trainerua berriz ere itsasora ateratzea lortu dute, tripulazio gazte-gaztearekin ETEn dira lehian. Kontra, gizonen B ontzia lehorrean utzi behar izan dute.

ARKAITZA laberna
Aupa Orio eta Hibaika!
Gamon Zumardia • Tel.: 943 522 862 • Orereta

BIDEBIETA autoeskola
Biteri kalea 20. Errenteria-Orereta. Tel.: 943 515 050
· GIDABAIMENA A1,A2,A,B
· CAP IKASTAROAK
· ADR IKASTAROAK
· KARRETILLA
· IKASTAROAK




Bertako traineruen lehia esparruari dagokionez, aldaketa bat. Iaz San Pedroko *Libia*-k, KAE1eko txapeldun izateaz gainera, Eusko Labelera igotzeko kanporaketa irabazi zuen. Beraz, klub morea gizonen traineruen kategoriarik gorenean ari da lehian joan den asteburutik, Asier Carballeda entrenatzaile berriarekin. San Pedrorekin batera, Eusko Labelen lehian Hondarribia ari da. Txanponaren bi aldeak irudikatuko dituzte aurten berdeek eta moreek: *Ama Guadalupekoa* trainerua maila horretako klasiko izateaz gainera, banderen lehian ariko da baldin eta noizbait Urdaibaik huts egiten badu; sanpedrotarren helburua da 2025ean ere bertan izatea, mailari eustea alegia.

Emakumeen ligarik handienean, Euskotrenen, Hondarribia eta Hibaika dira bertako eskualdeetako ordezkari. Lehenek, nahiz eta eskifaian aldaketa nabarmenak izan, badakite zer den goi mailan aritzea, astebururoko estuasunei aurre egiteko ohitura dute. Hibaikak bigarren urtea segidan du emakumeen elitean, eta taldean joan-etorri dezente izan dituzten arren, azaldu nahi dute emakumeen arraunean erreferentzia garbia direla oraindik, eta berezko duten borrokarako grina bere horretan mantentzen dutela, nahiz eta aurten ere taldean berregituraketa sakon bat egin behar izan duten.

**KAE1 eta ETE**

Argi izpiak San Juanen. Batetik, bi urtez lehorrean izan ondoren, *Batelerak* trainerua berriz ere itsasoratzea lortu dutelako. Bestetik, Joseba Fernandezek gizonen traineruaren agintea hartu, eta emaitza oso onak lortzen ari delako KAE1en lehian ari den *Erreka* ontzia. Azken hauek igoerako kanporaketarako bidea egoki hasi dute, azken urteetako ezinari aurre eginez.

Betalde, Hondarribia B ere KAE1en ari da. Emaitza apalekin oraingoz. Baina denbora onak edo puntu asko lortzea baino, formazio helburua du hondarribiarren bigarrenak, horri begirako izaera du *Ama Guadalupekoa* txikiak.

Ligen festa ez da hasi besterik egin. Jarraian datozen orrialdeetan traineruak osatuko dituztenen zerrendak, nahiz horiek gidatuko dituzten entrenatzaileen iritziak bilduta daude. Lerrook irailean irakurtzen badira, akaso erabat zentzugabeak irudituko zaizkie askori, hemen esandakoak eta ordurako egindakoak arras kontrajarriak izan daitezkeelako. Halakoa da arrauna: sentsazioak, usteak, emozioak eta kirol lehia batzen dituen hemengo kirola. ■

Traineru eta lore, beti kolore!
Pacheco Izeta
Loredenda
www.pachecoizetaloreak.com
943 49 18 68
MAMUT merkatalgunea
Oiartzun

www.iparaseguroak.com
IPAR aseguroak
Nafarroa etorbidea, 75 - behea
Errenteria. Tel.: 943 34 11 27

ondarribi grafikagintza
Inprenta
Serigrafia
GORA AMA GUADALUPEKOA!

• Haur eta helduentzat Terapia Estrategiko Laburra
• Banakako, bikote eta familia terapia
JAKOBE PSIKOTERAPIA
620.12.24.29
Jakobe Batanero Alvarez
Psikologoa GZ 1579
Xenpelar kalea 6, solairuartea, 5. bulegoa. Errenteria
www.jakobepsikoterapia.com



**Hibaikako arraunlariak, denboraldiaren aurkezpenean.** Ikerne Zarate

# Lana, konpromisoa eta ilusioa dituzte erregai

IKERNE ZARATE GARTZIARENA
ERRENTERIA-ORERETA

Erronka nagusiak play-offa eta zuzeneko jaitsiera saihestea ditu aurten Hibaikaren emakumeen ontziak. Seigarren postua lortzea da, beraz, marra gorria Iñaki Mendizabalek entrenatzen duen taldearentzat. Euskotren liga hasi berritan, *Madalen* ontzia bide onetik doala esan daiteke.

Galizian egindako bi estropadei begira irakurketa positiboa egin du Mendizabalek: «Aurreneko egunean ez ginen oso fin ibili, ez ginen ondo moldatu itsasora, mugitua zegoen eta ezin izan genuen gure lana ondo egin. Igandean, berriz, akats horiek zuzenduta, estropada biribila atera zitzaigun. Lehenengo luzean hasieratik buru hartuz, bukaerara arte. Azkeneko minututan Hondarribiak estutu gintuen, baina arraunlariak gai izan ziren abantaila mantentzeko».

Ez du lan erraza izan Mendizabalek, ezta arraunlariek ere. Baja ugari izan ditu taldeak: «Klubarentzat egoera zaila izan da, gehienbat arraunlarientzat. Kopuru handi batek uztea erabaki zuen; bateren












bat beste talderen batera joan da, erabaki hori hartu zuen. Kopuruz gutxi geunden, eta Gazte Mailako arraunlarietatik tira behar izan dugu asteburuoro trainerua uretara bota ahal izateko. Azken unean kanpotik, Alacantetik [Herrialde Katalanak], lau arraunlari etorri dira. Hemen arraunlari gutxi daude, eta zaila izaten da talde batetik bestera joatea, areago

## KAE-2 LIGA


**Adur Ferradas Aizpurua.** 21 urte. Errenteria-Orereta


**Aitor Legorburu Gomez.** 17 urte. Errenteria-Orereta


**Alejandro Fariña Roma.** 36 urte. Meis


**Ander Plata Gomez.** 17 urte. Errenteria-Orereta


**Ander Rekondo Herrero.** 22 urte. Larraun


**Ander Urtasun Osacar.** 38 urte. Donostia


**Anxo Murua Duran.** 16 urte. Errenteria-Orereta


**Edgar Leal.** 18 urte. Venezuela


**Eneko Aramendia Bartolome.** 18 urte. Tolosa


**Ibai Vaquero Legarra.** 18 urte. Tolosa


**Iraitz Lamana Lopez de Uralde.** 20 urte. Añorga


**Javier Erro Martinez.** 29 urte. Iruñea


**Jon Alvarez Zugasti.** 18 urte. Errenteria-Orereta.


**Jordi Triadu Dominguez.** 32 urte. Girona


**Jose Antonio Pereira Da Silva Maia.** 50 urte. Trintxerpe


**Lorenzo Agudo Quilez.** 43 urte. Añorga


**Oier Aierdi Gupegi.** 47 urte. Lezo


**Oier Gallastegi Rodriguez.** 18 urte. Errenteria-Orereta


**Oier Kalegain Noguera.** 18 urte. Ibarra.


**Unax Fernandez Prego.** 18 urte. Errenteria-Orereta

Entrenatzailea: **David Iglesias Albizu.** 49 urte. Trintxerpe.

## EUSKO TREN LIGA


**Ane Aiestaran Etxebeste.** 20 urte. Errenteria-Orereta


**Paula Amutxastegi Larrañaga.** 33 urte. Zarautz.


**Leire Arrojeria Aristondo.** 32 urte. Zarautz.


**Sofia Buscarol Orive.** 21 urte. Alacant.


**Paula Corcoles Ruiz.** 21 urte. Alacant.


**Nerea Curto Velo.** 15 urte. Errenteria-Orereta.


**Nerea Deobarro Corvo.** 20 urte. Errenteria-Orereta.


June Galardi Zapirain. 23 urte. Oiartzun.


**Amaiur Garcia Rincon.** 18 urte. Errenteria-Orereta.


**Maddi Iriarte Agudo.** 24 urte. Errenteria-Orereta


**Eva Lopez Chafer.** 23 urte. Alacant.


**June Mikeo Antequera.** 23 urte. Errenteria-Orereta.


**Eva Maria Macia Saez.** 20 urte. Alacant.


**Nerea Orena Diaz.** 43 urte. Donostia.


**Maddi Artola Retegi.** 20 urte. Oiartzun.


**Uxue Rodriguez Garcia.** 23 urte. Errenteria-Orereta


**Elene Telletxea Iarzabal.** 18 urte. Errenteria-Orereta


**Nora Urbe Muxika.** 18 urte. Hernani.

Entrenatzailea: **Iñaki Mendizabal Iturria.** 57 urte. Oiartzun.

gurearen gisako taldeetara. Taldera egokitzen ari dira eta ea udara pasa ahala hobetzen joaten garen».

**Konpromisoa, indarra eta gogoa**

KAE1 ligara igotzeko play-offera iristea du helburu Hibaikako gizonen ontziak. Hiru estropada jokatu, eta bitan emaitza kaskarrak izan dituzte, baina David Iglesias entrenatzailea helburua erdiesteko potentziala dutela sinistuta azaldu da. Taldearekin konfiantza osoa du: «Gure akats eta indarguneak ezagutzen ditugu. Badakigu orain artekoari buelta emateko aukera dugula».

Talde berria da Hibaikako gizonena: «Baldintza normaletan ongi moldatzen gara itsasoan, baina zailtzen direnean beteranotasunak garrantzia bizia du». Donostiako biharko estropadari begira da *Madalen* ontziaren prestatzaile eta arraunlaria. «Bi estropada oso gogor tokatu zaizkigu. Donostian beste bertsio bat emango dugu, sinistuta nago bihar irabaztea dugula, eta ez badugu irabazten, gertu izango garela. Atera, irabaztera aterako gara».

Taldearekin harro da: «Taldetzarra dut, %100 erantzuten didana, mutil gazte konprometituak ditugu, eta hori aurkitzea oso zaila da gaur egun». Maila bera ematea ezinbestekoa da harentzat. «Dudan beldur handiena da taldea bere mailan ez aritzea; ezin diet hutsik egin. Talde oso ona dugu, psikologikoki oso indartsua, eta zerbait lortu badugu bat eginda egotea da. Talde honekin ziur naiz bukaerara arte borrokatuko garela. Konpromisoa, indarra eta gogoa duen taldea dugu uretan».









**Gizonen ontzia, Gipuzkoako Txapelketan.** Josu Z.

# Hondarribiko traineruek gora begira jarri nahi dute

MIKEL DEL VAL
HONDARRIBIA

Erreferentziazko trainerua izan da Hondarribiko gizonena azken urteetan, eta onenen pare jarraitu nahi dute aurten ere. Galiziako estropadek erakutsi dute goiko postuen lehian ibiliko dela *Ama Guadalupekoa*. Coruñan bigarren izan ziren, eta Bueun, bosgarren. Berdeak sailkapeneko hirugarren postuan kokatu dira, 19 punturekin, lidergoan den Urdaibaitik bost puntura eta bigarren den Zierbenatik puntu bakarrera.

Galiziatik ohorezko txandan itzultzeko helburua zutela jakinarazi du Mikel Orbañanos *Ama Guadalupekoa*-ren entrenatzaileak. Esan eta egin, ohorezko txandan irtengo baitira bihar Donostiako XVI. Fabrika Banderan. Orain, helburu nagusia ohorezko txanda horretan mantentzea dela esan du Orbañanosek.

Iaz, sasoi bikaina osatu arren, sari potolorik gabe geratu ziren hondarribiarrak, hirugarren izan baitziren bai ligan

## EUSKO TREN LIGA



**Erika Badiola Zalakain.** 18 urte. Hondarribia.
**Nerea Amunarriz Valladares.** 17 urte. Hondarribia.
**Maider Peñalva Gomez.** 24 urte. Gasteiz.
**Jone Ugarte Casas.** 18 urte. Hondarribia.
**Ane Mendizabal Sarriegi.** 26 urte. Hondarribia.
**Intza Fernandez Espinal.** 27 urte. Lasarte.
**Irati Camarero Barrasa.** 22 urte. Hondarribia.
**Miren Garmendia Moneo.** 25 urte. Hernani.
**Desire Alonso Arkotxa.** 31 urte. Castro.
**Eneritz Martiarena Arozena.** 22 urte. Irun.
**Nahia Graciet De Labaka.** 32 urte. Urruña.
**Ane Gogorza Galarza.** 24 urte. Iruñea.
**Zuberoa Egurrola Arriaga.** 21 urte. Elantxobe.
**Iraia Mendizabal Sarriegi.** 23 urte. Hondarribia.
**Jule Arkotxa Arrate.** 20 urte. Lekeitio.
**Katalin Negrete Arrillaga.** 20 urte. Mendexa.
**Maddi Olaskoaga Elias.** 24 urte. Hondarribia.
**Maider Perez Arzak.** 27 urte. Hernani.

Entrenatzailea: **Iker Cortes Kintana.** 41 urte. Sestao.



## EUSKO LABEL LIGA

**Joseba Amunarriz Goikoetxea.** 45 urte. Hondarribia.

**Manex Alday Eizagirre.** 34 urte. Hondarribia.

**Beñat Egiazu Zubillaga.** 30 urte. Hondarribia.

**Iñigo Jokin Sagarzazu Gonzalez.** 32 urte. Hondarribia.

**Xabier Etxebeste Garcia.** 45 urte. Zarautz.

**Bikendi Alza Piriz.** 31 urte. Hondarribia.

**Galder Esponda Aginagalde.** 30 urte. Hondarribia.

**Ander Legazkue Agirre.** 26 urte. Hondarribia.

**Xabier Olaskoaga Elias.** 21 urte. Hondarribia.

**Adrian Gonzalez Ruiz.** 34 urte. Castro.

**Iker De La Linde Garcia.** 26 urte. Hondarribia.

**Eneko Iridoy Gaztelumendi.** 23 urte. Hondarribia.

**Battit Ondikola Oronoz.** 29 urte. Donibane Lohizune

**Ibai Camarero Barrasa.** 24 urte. Hondarribia.

**Fernando Ruiz Larrañaga.** 34 urte. Castro.

**Joseba Azurmendi Garciandia.** 33 urte. Donostia.

**Jon Etxaniz Eizagirre.** 29 urte. Azpeitia.

**Xabier Ormazabal Amondarain.** 28 urte. Tolosa.

**Aimar Kanpandegi Oiarzabal.** 21 urte. Hondarribia.

**Mattin Colas Mendoza.** 21 urte. Hondarribia.

Entrenatzailea: **Mikel Orbañanos Zabala.** 51 urte. Orio.

## KAE-1

**Ioritz Errezola Pikabea.** 25 urte. Hondarribia.

**Alex Fernandez Sanchez.** 22 urte. Oiartzun.

**Heren Suarez Emazabel.** 19 urte. Hondarribia.

**Iker Alvarez Mallo.** 20 urte. Irun.

**Inaxio Etxebeste Lizarraga.** 18 urte. Hondarribia.

**Telmo Bald Saez De La Fuente.** 23 urte. Irun.

**Jon Leiza Igartzabal.** 23 urte. Lesaka.

**Martin Muñoz Castellanos.** 21 urte. Hondarribia.

**Julen Balerdi Sanz.** 21 urte. Irun.

**Eneko Larruskain Larretxea.** 18 urte. Hondarribia.

**Julen Martinez Rodriguez.** 21 urte. Hondarribia.

**Iker Huarte Ruiz.** 21 urte. Hondarribia.

**Lander Colas Mendoza.** 19 urte. Hondarribia.

**Osertz Larretxea Dominguez.** 18 urte. Hondarribia.

**Xabier Salaberria Fachado.** 21 urte. Hondarribia.

**Oier Garaiar Uzkudun.** 20 urte. Hernani.

**Unai Jerico Amunarriz.** 19 urte. Hondarribia.

**Xabier Ibarretxe Zoco.** 18 urte. Zierbena.

Entrenatzailea: **Gonzalo Carrion Insausti.** 47 urte. Hondarribia.

nahiz Kontxan. Ezbairik gabe arantza hori kendu nahi dute aurtengoan, eta horretarako iazko maila ematea lortu behar dutela adierazi du Orbañanosek. Prestatzailea ziur da talde ona dutela onenen pare egoten jarraitzeko. Aurtengo eskifaia iazkoaren oso antzekoa dela baietsi du. Lau aldaketa izan dituzte denera, eta harrobiko hiru arraunlari igo dituzte lehen taldera, harrobiarengatik egiten duten apustuaren seinale garbia da hori.

Galiziako emaitzekin «gustura» badaude ere, Orbañanosek onartu du Urdaibai eta Zierbena «oso maila txukuna» ematen ari direla, eta *Ama Guadalupekoa* oraindik haiengandik zertxobait azpitik dagoela. Hala ere, Hondarribia «bide onetik» doala aitortu du prestatzaileak.

Orain arteko estropadak ikusita, lehia gogorra aurreikusi du Orbañanosek. Urdaibai besteen gainetik dagoela adierazi du. Bizkaiko, Euskadiko eta Espainiako txapeldun izateaz gain, Galiziako bi estropadak ere poltsikoratu ditu *Bou Bizkaia*-k. Zierbena ere kontuan hartzeko trainerua dela uste

IRUBI TAILERRAK
Multimarka tailerrak
VW, SEAT, AUDI, SKODA
eta pneumatikoetan espezialistak
Talaia poligonoa E 12. - Oiartzun
Tel.: 943 26 13 25 . Faxa: 943 26 13 26
mecanicairubi@gmail.com
www.mecanicairubi.com

GORA AMA GUADALUPEKOA!
LARRAÑAGA PROIEKTUAK
ERREFORMA INTEGRALAK - SUKALDEAK
BAINUAK - BARNE DISEINUA
www.larranaga-proiektuak.com
Talaia industriagunea P-1, 8. lokala. OIARTZUN - Tel.: 943 558 104



**Emakumeen ontzia Bueuko estropadan.** Aitor Arrizabalaga / ACT

du. Gainontzeko ontziak, Hondarribia tarteko, «ilusioz» eta «esperantzaz» daudela aitortu du Orbañanosek, haiei «gerra emateko».

**Emakumeak**

Gizonen antzera, Iker Cortes emakumeen traineruaren entrenatzaileak lehen asteburuaren balantzea «oso positiboa» izan dela nabarmendu du. Helburu behinenak play-offa eta jaitsiera saihestea direla aitortu du *Ama Guadalupekoa*-ren prestatzaileak. Coruñan bosgarren postuan sailkatu ziren, eta Bueun, seigarrenean. «Gure mailan aritu ginen eta gustura gaude egin genuenarekin», esan du. Galiziako estropaden ondoren sailkapenean bosgarren postuan kokatu dira, zazpi punturekin.

Debuteko asteburuko, gainera, Galiziako ontzien erreferentziarik ez zutela zehaztu du Cortesek, baina Cabo eta Tiran garaitu zituzten bi estropadetan. Alde horretatik «kontent» da *Ama Guadalupekoa*-ren prestatzailea: «Denboraldi osoan bi galiziarrei irabazten badiegu, play-offa saihestuko dugu».

Iaz salbazioa erraz lortu zuten, eta aurten ere gora begira jarri nahi dute. Play-offa eta jaitsiera ekidinda, «ahalik eta gorenen» gelditzea gustatuko litzaioke Cortesi. Une honetan, Arraun Lagunak «oso gainetik» dagoela zehaztu du hondarribiarren prestatzaileak. Donostiarrek Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako txapelketak bere egin dituzte, eta Euskotren ligako lehen bi estropadetan ere nagusitu dira. Orio eta Tolosaldea ere koska bat gorago daudela iritzi du Cortesek, baina Donostiarra Hondarribitik gertu dagoela adierazi du. Asteburuan Donostiarratik soilik hamar segundora gelditu zen *Ama Guadalupekoa*, eta hamar segundo horiek edozein momentutan jan daitezkeela ziur da berdeen prestatzailea. Hori dela eta, noizbehinka ohorezko txandan sartu daitezkeela uste du Cortesek: «Beti saiatuko gara goikoei begiratzen behekoei baino».

Eskifaiari dagokionean, aldaketa batzuk izan direla aurreratu du Cortesek. Orotara, bost alta eta baja izan dituzte, eta aurtengo taldea iazkoa baino «indartsuagoa» dela uste du prestatzaileak. Orain, blokea osatzea falta zaiela uste du. «Blokea osatzen dugun heinean, hobetuko dugu», esan du.

**Gizonen B trainerua**

Gizonen bigarren trainerua da klubak lehian duen hirugarren ontzia. KAE1 Ligan ari dira, eta hiru estropada jokatu ondoren, sailkapeneko azken-aurreneko postuan daude, 9 punturekin. Gonzalo Carrionek talde gaztea du esku artean, eta lehen taldea elikatzen jarraitzeko xedea izango dute aurtengoan ere bai.

hondar
www.restaurantehondar.com
Zuloaga, 20. HONDARRIBIA. Tel.: 943 64 27 83
Gora Ama Guadalupekoa!



## 155

**ARRAUNLARIAK.** Oarsoaldeko eta Bidasoko zortzi traineru izango dira bogan aurten ligetan: 155 arraunlarik osatzen dituzte plantillak. Hiru traineru dituelako, gehienak Hondarribikoak dira, 56. Hibaikako bi traineruetako kide 38 kirolari dira, eta San Juanen bietan daudenak 41. San Pedrok traineru bakarra du, 20 kirolari ditu taldean. 155 horietatik 58 emakumeak dira, Hondarribiko, Hibaikako eta San Juango ontzietakoak. Ez da beste eskualderik hainbeste arraunlari izango dituenik ligetan.

## Kontxa, iraila hasi berritan

KONTXA. Ligetaz gain, traineruen urteko norgehiagoka nagusiena Donostiako Kontxako Bandera izaten da. Goiztiar dator aurten. Izan ere, iraileko lehen igandeak eta lehen egunak bat egiten dute, eta orduan izango da lehen jardunaldia. Bigarrena, beraz, astebete geroago izango da, irailaren 8an.

Kontxara sailkatzeko estropadak, beraz, abuztuan dira: 28an (asteazkena) gizonena, eta 29an emakumeena. Ikusi beharko Oarsoaldeko eta Hondarribiko traineruek Kontxan sartzeko aukerarik izango ote duten.



Josu Z.

## GIPUZKOAKOA, BOSGARRENEZ JARRAIAN

U. ETXEBESTE

**TXAPELKETAK. Ligak hasi aurretik, ekainean jokatu dira aurten traineru txapelketak. Gipuzkoakoa ekainaren 2an jokatu zen Hondarribian, eta gizonetan etxeko taldea izan zen onena. Bosgarrenez jarraian irabazi zuen *Ama Guadalupekoa* traineruak herrialdeko txapela. Hortaz, Euskadiko Txapelketarako txartela lortu (hirugarren izan ziren) zuten berdeek, baita San Juanek ere, Gipuzkoakoan laugarrena izan zelako.**

**Euskadiko eta Espainiako txapelketak, berriz, Donostiako Kontxan egin zituzten ekainaren 9 eta 16an hurrenez hurren. Euskadikoan, beteranoetan, Trintxerpe-Illunbe txapeldunorde izan zen.**

## Bederatzi estropada Oarso-Bidasoan

ESTROPADAK. Abian diren bost ligetako bederatzi estropada izango dira Oarsoaldean eta Hondarribian. Horietatik hiru jada egin dira, ekainaren 23an lehiatu zirelako ETEko, nahiz KAE1 eta KAE2ko Pasaiakoak. Hurrengoa, uztaileko bakarra, Oiartzun ibaiak jasoko du: KAE2ko Errenteria Hiria Ikurrina.

Gainontzeko bostak abuztuan dira: hil horretako 10ean Hondarribian egingo dituzte Eusko Label eta Euskotrenekoak. Abuztuaren 11n berriz, hiru lehia: gizonen eta emakumeen liga nagusietako (Eusko Label eta Euskotren) Pasaiako ikurrinak, nahiz KAE1eko Hondarribikoa.

Hurbileko estropadak aipatzearren, bihar (larunbata) hiru estropada jasoko ditu Donostiako Kontxak: Euskotren eta Eusko Labelekoak arratsaldez, eta KAE2koa goizez.







**Arraunlariak ekainaren 22ko aurkezpenean.** Alaine Aranburu

# San Pedro, ilusioz itzuleraren denboraldirako

**MIKEL DEL VAL**
PASAIA

Iaz denboraldi bikaina osatu ondoren, Eusko Label Ligarako igoera lortu zuen San Pedrok. Bost urteren ondoren, elitera bueltan da *Libia*, eta «ilusioz» daudela aitortu du Xabier Isasa presidenteak.

Sanpedrotarren denboraldi aurreko emaitzak, baina, nahiko gorabeheratsuak izan dira. Gipuzkoako Txapelketan seigarren izan ziren, garaile izan zen Hondarribitik 51 segundora. Eusko Labeleko gainontzeko traineruak nabarmen aurretik izan zituzten moreek, baita KAE1 ligako San Juan ere. Emaitza horiek, beharbada, alarma gorria piztu zuten zaleen artean; ez ordea klubean.

Oinak lurrean, Isasak onartu du jakinaren gainean zeudela «beheko postuen borrokan» ibiliko den taldea direla; hortaz, egoera horrek ez ditu ezustean harrapatu. *Libia* ontzia «mentalizatuta» iritsi da denboraldi hasierara, jakinda hasiera gogorra izango zela eta liga «oso potentea» dela. Hala ere, presidenteak ez du ezkutatu «ilusioz» eta «borrokatzeko prest» daudela.

Asier Carballedak iazkoaren antzeko eskifaia izango du bere esanetara, igoerako blokea mantendu baitute. Taldeak bospasei aldaketa izan ditu iazkoarekin alderatuta, eta Isasak adierazi du talde «lehiakorra» dutela. «Arraunlariak mentalizatuta daude eta badakite zer daukagun esku artean. Ilusioarekin gaude».

Igo berria den taldea izanik, Isasak argi du aurreneko helburua azken postuak saihestea dela. «Hori da gure erronka», esan du. Bide horretan, presidenteak baietsi du ahalik eta probetxu gehiena ateratzen saiatuko direla dituzten baliabideei, eta ondoren, urak jarriko dituela beren lekuan. Partidaz partidako filosofiari helduta, moreak ere «estropadaz estropada» joango direla nabarmendu du Isasak, eta haren ustez aurtengo sasoia arraunlari askorentzat eta klubarentzat ikastekoa izango da, ia hamar arraunlarik egin berri baitute debuta Eusko Label Ligan. Ikasketa prozesu hori etorkizunerako ere «probetxugarria» izango dela ziur da presidentea.

**Galiziako balantzea, ona**

Orain arteko emaitzak onenak izan ez badira ere, azken asteetako entrenamenduak «oso onak» izan direla jakinarazi du Isasak, eta sentsazio on horiek Coruñako eta Bueuko estropadetan islatu zirela adierazi du. Galiziako bi estropadetan hamaikagarren sailkatu ziren moreak, hau da, azke-



## EUSKO LABEL LIGA

**Iñigo Arraras Puy.**
31 urte. Pasaia.

**Alex Badiola Iglesias.**
30 urte. Errenteria-Orereta.

**Gabriel Bedia Diez.**
34 urte. Pedreña.

**Aratz Bergara Kortadi.**
22 urte. Donostia.

**Asier Carballeda Garcia.**
44 urte. Pasaia.

**Oier Elustondo Dominguez.**
23 urte. Pasaia.

**Aitor Iruiñ Luloaga.**
19 urte. Tolosa.

**Jon Jauregi Mendizabal.**
24 urte. Andoain.

**Unai Martin Rodriguez.**
23 urte. Donostia.

**Iñigo Mercader Soroa.**
34 urte. Donostia.

**Jon Morillo Garcia.**
25 urte. Errenteria-Orereta.

**Beñat Ouviña Martinez.**
22 urte. Pasaia.

**Aitor Portela Dominguez.**
26 urte. Donostia.

**Martin Rekondo Herrero.**
26 urte. Larraul.

**Aimar Santiago Tardio.**
20 urte. Pasaia.

**Mamadou Sarr.**
32 urte. Mar Fafaco.

**Iñigo Tamariz Artola.**
25 urte. Donostia.

**Gorka Toledo Pellejero.**
29 urte. Tolosa.

**Xabier Txintxurreta Ariz.**
22 urte. Pasaia.

**Mikel Txintxurreta Ariz.**
26 urte. Pasaia.

Entrenatzailea: **Asier Carballeda Garcia.** 44 urte. Pasaia.

naurren, baina sanpedrotarrak «oso pozik» itzuli dira. Debut astearen balantze ona egin du Isasak.

Larunbatean, Cidade de Coruñako VIII. Banderan, zazpigarren izan zen Lekittarratik soilik sei segundora helmugaratu zen *Libia*, aldeak oso estuak izan ziren ontzien artean. Igandean, aldiz, Concello de Bueuko III. Banderan, diferentziak handiagoak izan ziren, baina positiboena da San Pedro Bueuko ontzia bi estropadetan atzean uzteko gai izan dela. *Libia*, hortaz, lau punturekin itzuli da Galiziatik.

Isasa ziur da asteburu batzuk «mentalki nahiko gogorrak» izango direla, baina beste batzuk onak izango direla badaki. Coruñan ez zuten zortea alde izan, aldeak estuak izan baziren ere, *Libia* izan baitzen atzean geratu zena. Hala ere, lehen asteburuak erakutsi du gainontzeko ontziekin lehian izango direla, eta presidenteak adierazi du «detaile guztiak aprobetxatuta» Coruñan izandako zorte txar hori on bilakatu daitekeela: «Uste dut gai izango garela besteei erakusteko lo hartzen badute hor egongo garela. Pozgarria da ikustea arraunlariak dena ematen ari direla, eta haientzat ere prozesu bat da. Pazientziarekin uste dut aurrera egingo dugula». ■

EROSKI city
AUPA SAN PEDRO!
Herriko plaza, 8.
Pasai San Pedro
Tel.: 943 39 38 12




zure taxia!
Taxi Jaizkibel
Donibane. Antxo.
San Pedro. Trintxerpe. Lezo
943.39.14.14






**Bi urtez lehorrean izan ondoren, bueltan da 'Batelerak' ontzia.** Josu Z.

# Itxaropenerako arrazoiak dituzte San Juanen

**URKO ETXEBESTE PETRIRENA**
PASAIA

Baikortasuna eta itxaropena. Horiek San Juan-Koxtape Arraun Elkartean egun dituzten sentsazioak. Baikortasuna lehian dituzten bi traineruek sasoi hasiera ona izan dutelako. Itxaropena, bi urtez lehorrean izan ondoren Batelerak berriz ere itsasora atera direlako. Kontra, gizonen B ontzia biltegian utzi behar izan dute.

Gazte-gazteak dira emakumeen ontziko arraunlariak. Klubaren hurbileko historian emakumeek eman diote taldeari bandera kopuru eta loria gehien arrosei. Berriz ere *Batelerak* trainerua itsasoratu duten emakume gazteentzat hori guztia zama baino, motibazioa da. Eredu dira emakume txapeldun horiek. «Lehenengo lana trainerua itsasora ateratzea izan dugu. Aurten, klubeko beheko kategorietatik iritsitako neska dezente genituelako osatu ahal izango dugu. Atera dugu, hori da garrantzitsuena», zehaztu du Anartz Gereño entrenatzaileak. ETE Ligan lau estropada egin dituzte jada: «Ez dugu esperientziarik traineruen alorrean. Egiten dugun guztia ongietorria izango da, estropadetako postuak edozein direla ere. Probak egiten ari gara; batzuetan ondo aterako dira, besteetan agian ez espero bezala. Detaile txiki asko dira. Horretan ari gara».

Arraunean esperientzia handikoa da Gereño, bai arraunlari zein prestatzaile bezala. Taldea gidatzeko garaian Oihana Cereijo Batelera historikoaren laguntza duela adierazi du, heldulekua da harentzat egunerokoan. Emakumeen traineruaren proiektua hasiberri den arren, Gereñok uste du talde honek elkarrekin urte batzuk egiten baditu, helburu potoloetara iristeko aukera izanen dutela: «Denbora gutxian dezenteko maila ematen ari dira. Aurreko Bateleren aroan gertatu zena ehun urtean behin gertatzen da. Oso berezia izan zen hura. Taldea mantentzen badugu, maila horretara agian ez, baina oso lan txukuna egin dezakegu».

Zaindu, elkar ezagutu, giro ona izan, pozik egon. Horretan jarri du azpimarra Gereñok aurrera egiteko: «Noski, teknikoki ere aurrera egin behar dugu. Baina gure arteko giro egokia izatea ezinbestekoa da aurrera egiteko. Talde bat pozik dagoenean, gainontzeko guztia etorri egiten da».

**Ametsetatik, helburu zehatzetara**

San Juanen gizonen trainerua sasoi hasierako sentsazioetakoa izaten ari da. Ekaineko txapelketetan bikain aritu ziren, eta ligen aroa hasita, berretsi egin dute uste zen hori: KAE1eko hiru






## ETE LIGA



**Izar Aranburu Mutiloa.** 16 urte. Oiartzun.
**Elaia Arruti Irastorza.** 17 urte. Lezo.
**Udane Beraza Aldaz.** 17 urte. Pasaia.
**Aiora Calvo Arbona.** 17 urte. Donostia.
**Danae Erkis Aguilar.** 21 urte. Errenteria-Orereta.
**Janire Fernandez Garcia.** 25 urte. Lezo.
**Janire Goñi Balerdi.** 18 urte. Tolosa.
**Laia Gereño Legorburu.** 16 urte. Pasaia.
**Maddi Gereño Legorburu.** 18 urte. Pasaia.
**Basagaitz Gereño Omil.** 44 urte. Pasaia.
**Katia Irazu Salaberria.** 17 urte. Lezo.
**Haizea Jauregi Aristi.** 18 urte. Tolosa.
**Haizea Lekuona Garmendia.** 19 urte. Oiartzun.
**Amalur Leon Gereño.** 44 urte. Pasaia.
**Amaritu Lopetegi Aramendi.** 17 urte. Pasaia.
**Ainhoa Martinez Alvarez.** 53 urte. Pasaia.
**Naroa Prieto Cuesta.** 24 urte. Oiartzun.
**Alaitz Urtizberea Gastañares.** 19 urte. Hondarribia.
**Laida Valderrama Crujeiras.** 21 urte. Oiartzun.
Entrenatzailea: **Anartz Gereño Omil.** 50 urte. Pasaia.

## KAE-1 LIGA



**Imanol Arregi Intxausti.** 35 urte. Oiartzun.
**Anartz Beraza Aldaz.** 21 urte. Pasaia.
**Yannik Briones Duarte.** 28 urte. Pasaia.
**Amos Francesco Cobzaru.** 21 urte. Pasaia.
**Mikel Etxabe Etxeberria.** 22 urte. Pasaia.
**Ander Egaña Agirresarobe.** 27 urte. Errenteria-Orereta.
**Orkatz Erkizia Ortega.** 20 urte. Oiartzun.
**Joseba Fernandez Daguer.** 49 urte. Pasaia.
**Igor Gomez Etxegarai.** 42 urte. Errenteria-Orereta.
**Aritz Irigoien Agesta.** 23 urte. Oiartzun.
**Ibai Laboa Garcia.** 28 urte. Pasaia.



**Iker Larre Bengoetxea.** 19 urte. Errenteria-Orereta.
**Julen Larre Bengoetxea.** 22 urte. Errenteria-Orereta.
**Ander Makazaga Gonzalez.** 26 urte. Pasaia.
**Unai Mitxelena Puy.** 26 urte. Oiartzun.
**Adur Mitxelena San Sebastian.** 19 urte. Errenteria-Orereta.
**Oier Mugarza Galar.** 25 urte. Oiartzun.
**Imanol Muñoz Roman.** 28 urte. Hernani.
**Markel Perez Orbegozo.** 21 urte. Pasaia.
**Aritz Rial Goikoetxea.** 28 urte. Pasaia.
**Joseba Rodriguez Gorostidi.** 21 urte. Orio.
**Ibai Sistiaga Zunzunegi.** 35 urte. Pasaia.
Entrenatzailea: **Joseba Fernandez Daguer.** 49 urte. Pasaia.

banderak irabazi dituzte. Beraz, Eusko Labelera igotzeko kanporaketetan izatea jada ez da ametsa, helburu zehatza da. «Baina ez dago dena egina, inolaz ere. Asteburuiro puntuak banatzen dira. Bi hilabete eta erdiko lana da. Ez dugu arazorik goian egoteko, ondo goaz eta pozik gaude. Baina astez aste joan behar dugu, eta ea bukaeran play-offetako postuetan gauden». Zuhur mintzo da Joseba Fernandez entrenatzailea.

Arkote, Lapurdi, Zarautz, Zumaia... Horiek KAE1en San Juanek orain arte hurbilen izan dituen ontziak. Borroka estua espero du Fernandezek. Baina aurreko urteetan Endika Zaldua entrenatzaileak landu duen blokeari balioa eman dio sanjuandarrak, eta gazte multzo horri eskarmentudun arraunlariak —Fernandez tartean— gehituta, taldean «nahasketa polita» dutela aitortu du prestatzaileak. «Gainera, giro ezin hobea dugu gure artean. Zoratzen gabiltza emaitzekin, bai. Baina etorkizuneko proiektua da gurea. 21–22 urteko arraunlariak dira bizkarrezurra».

Etxera bueltatu da aurten Fernandez. Aurreko sasoietan mila batailatan izandakoa da, klub oso handietan. Bere lan egiteko era jada nabaritu dute klubean. «Baina nire bueltatze honetan nabaritu dudana izan da ilusio handia dagoela hemen. Azken urteetan igotzeko egindako saiakera antzuek nolabaiteko asperdura eragin zuten klubean, eta hori iraultzeko gogo bizia dago. Arraunlariei inor baino gutxiago ez direla esaten diet. Baina hori egunerako lanarekin azaldu behar da».







# ESTROPADEN EGUTEGIA 2024

| | | | |
|---|---|---|---|
| **EKAINA** | | | |
| 22 | Astilleroko bandera | Astillero | ETE |
| 22 | Astilleroko bandera | Astillero | KAE2 |
| 23 | Pasaiako Ikurrina | Pasaia | ETE |
| 23 | CMO Valves Bandera | Pasaia | KAE1 |
| 23 | Pasaiako Ikurrina | Pasaia | KAE2 |
| 29 | Coruñako bandera | Coruña | Euskotren |
| 29 | Coruñako bandera | Coruña | Eusko Label |
| 29 | Donibane Lohizuneko bandera | D. Lohizune | ETE |
| 29 | Donibane Lohizuneko bandera | D. Lohizune | KAE1 |
| 29 | Elantxobeko bandera | Elantxobe | KAE2 |
| 30 | Zumaiako Ikurrina | Zumaia | ETE |
| 30 | Zumaiako Ikurrina | Zumaia | KAE1 |
| 30 | Bueuko bandera | Bueu | Euskotren |
| 30 | Bueuko bandera | Bueu | Eusko Label |
| **UZTAILA** | | | |
| 6 | Fabrika Bandera | Donostia | Euskotren |
| 6 | Fabrika Bandera | Donostia | Eusko Label |
| 6 | Camargoko bandera | Camargo | ETE |
| 6 | Camargoko bandera | Camargo | KAE1 |
| 6 | Donostiako bandera | Donostia | KAE2 |
| 7 | Edinor Bandera | Zierbena | Euskotren |
| 7 | Petronor Bandera | Zierbena | Eusko Label |
| 7 | Portugaleteko bandera | Portugalete | ETE |
| 7 | Portugaleteko bandera | Portugalete | KAE1 |
| 13 | Bilboko bandera | Bilbo | Euskotren |
| 13 | Bilboko bandera | Bilbo | Eusko Label |
| 13 | Sestaoko bandera | Sestao | ETE |
| 13 | Kaiku Bandera | Sestao | KAE1 |
| 14 | Sestaoko bandera | Sestao | Euskotren |
| 14 | Sestaoko bandera | Sestao | Eusko Label |
| 14 | Errenteria Hiria Ikurrina | Errenteria-Orereta | KAE2 |
| 20 | Arousako bandera | Ribeira | Euskotren |
| 20 | Arousako bandera | Ribeira | Eusko Label |
| 20 | Pedreñako bandera | Pedreña | ETE |
| 20 | Pedreñako bandera | Pedreña | KAE1 |
| 21 | Rianxeira Bandera | Boiro | Euskotren |
| 21 | Boiroko bandera | Boiro | Eusko Label |
| 21 | Santoñako bandera | Santoña | KAE2 |
| 27 | Getxoko bandera | Getxo | Euskotren |
| 27 | Getxoko bandera | Getxo | Eusko Label |
| 27 | Santurtziko bandera | Santurtzi | KAE1 |
| 27 | San Juan de Dios Ikurrina | Santurtzi | KAE2 |
| 28 | Euskotren Bandera | Lekeitio | Euskotren |
| 28 | El Correo Ikurrina | Lekeitio | Eusko Label |
| 28 | Erandioko bandera | Erandio | ETE |
| 28 | Gorlizko bandera | Gorliz | KAE1 |
| 28 | Erandioko bandera | Erandio | KAE2 |
| **ABUZTUA** | | | |
| 3 | Caixabank Bandera | Castro Urdiales | Euskotren |
| 3 | Caixabank Bandera | Castro Urdiales | Eusko Label |
| 3 | Hernaniko bandera | Orio | ETE |
| 3 | Orioko bandera | Orio | KAE1 |
| 3 | Mundakako bandera | Mundaka | KAE2 |
| 4 | Orioko bandera | Orio | Euskotren |
| 4 | Orioko bandera | Orio | Eusko Label |
| 10 | Txingudiko Bandera | Hondarribia | Euskotren |
| 10 | Mapfre Sari Nagusia | Hondarribia | Eusko Label |
| 10 | Ondarroako bandera | Ondarroa | ETE |
| 10 | Ondarroako bandera | Ondarroa | KAE2 |
| 11 | Gertu Eraikuntzak Bandera | Pasaia | Euskotren |
| 11 | Pasai San Pedroko Ikurrina | Pasaia | Eusko Label |
| 11 | Hondarribiko Kofradia Bandera | Hondarribia | KAE1 |
| 15 | Plentziako bandera | Plentzia | ETE |
| 15 | Plentziako bandera | Plentzia | KAE1 |
| 15 | Castro Urdialeseko bandera | Castro Urdiales | KAE2 |
| 17 | Zarauzko Ikurrina (1. jard) | Zarautz | Euskotren |
| 17 | Zarauzko Ikurrina (1. jard) | Zarautz | Eusko Label |
| 17 | Zarauzko bandera | Zarautz | ETE |
| 17 | Zarauzko bandera | Zarautz | KAE1 |
| 18 | Zarauzko Ikurrina (2. jard) | Zarautz | Euskotren |
| 18 | Zarauzko Ikurrina (2. jard.) | Zarautz | Eusko Label |
| 18 | Bilboko Ikurrina | Bilbo | ETE |
| 18 | Bilboko Ikurrina | Bilbo | KAE1 |
| 24 | Ondarroako bandera | Ondarroa | Eusko Label |
| 24 | Ria Ason Bandera | Colindres | KAE2 |
| 25 | Getariako Ikurrrina | Getaria | Eusko Label |
| 28 | Kontxa. Gizonen sailkapena | Donostia | |
| 29 | Kontxa. Emakumeen sailkapena | Donostia | |
| **IRAILA** | | | |
| 1 | Kontxa. Lehen jardunaldia | Donostia | |
| 8 | Kontxa. Bigarren jardunaldia | Donostia | |
| 14 | Igoera-jaitsiera play-offa (1. jard) | Bermeo | Euskotren |
| 14 | Piskin Marinoil Bandera | Bermeo | Eusko Label |
| 14 | Igoera jaitsiera play-offa (1. jard.) | Bermeo | Eusko Label |
| 15 | Igoera-jaitsiera play-offa (2. jard) | Portugalete | Euskotren |
| 15 | El Corte Ingles Bandera | Portugalete | Eusko Label |
| 15 | Igoera-jaitsiera play-offa (2. jard.) | Portugalete | Eusko Label |


Estetika mundua zure esku

www.naiuestetika.com

info@naiuestetika.com

naiuestetikapagina

@naiuestetika





naiu estetika

89m2-ko espazio atsegin bat tratu guztiz pertsonalizatuarekin

Astelehenetik ostiralera: 10:00-20:00

Larunbatetan, aurretiko hitzordua eskatu

Arrandegi kalea 4, 20110 Pasaia (trintxerpe)

943 53 84 24 656 73 19 47

PASAIAKO ITSAS ARRANTZA – Blas de Lezo LHII

Blas de Lezo

BOGA!

OINARRIZKO, ERDI ETA GOI ZIKLOAK

NABIGAZIOA - MAKINAK - URPEKARITZA

Marinos kalea, 2. 20110 Pasaia. Tel.: 943 40 40 05
blasdelezo@pasaiaeskola.net - www.pasaiaeskola.net




JAKIN S.L.

AHOLKULARITZA
ASEGURUAK
ERA GUZTIETAKO GESTIOAK

www.jakinservicios.com

Morrongilleta 11-13. 270 Posta kutxa. Errenteria. Tel.: 943 51 96 88 - 943 52 75 32. Faxa: 943 51 60 04

PASAIA KAYAK

PASAIAZ BLAI!
ZAIN GAUZKAZU!
BADIA ZURE ESKU!

HERRERA HEGOALDEKO PORTU-EREMUA, Z.G.
TRINTXERPE 20110
pasaiakayak2005@gmail.com - tel.: 644 67 27 22




Lete
itzulpenak
www.lete.net

administrazioa . publizitatea
liburuak . enpresa

Tel.: 943 515 346 • lete@lete.net
www.lete.net

Jone Larrea-Psikologia

jone@jonelarrea.eus
jonelarrea.eus - Irun - 615 789 984


Hondarribiko Udala
digitarte
Hondarribian euskaraz bizi gara!